

B

B A R R E N

Agur eta ohore

Gotzon Garate euskaltzalea hil da



BEITIA ARRIOLA FISIOTERAPIA eta HORTZ KLINIKA

**Urriak 17, Ostirala
INAUGURAZIOA!!!
Azaldu zaitetze!**



Urriaren 13tik aurrera ordua hartu ahal izango da!!!

Fisioterapia

Hortz klinika

Olatz Beitia Arriola

Jone Beitia Arriola

943 53 14 02

943 53 18 69

Trenbide kalea 21,behea

estetikaalire ZER DA FOTODEPILAZIOA?

- ☉ Fotodepilazioak gura ez dugun ilea ezabatzen digu, izpi disdiratsu baten bitartez (laserra edo argi pultsatua).
- ☉ Ilean melaninak, modu selektiboan, argi-energia hori xurgatu egiten du. Folikulora transmititzean, bere bihurtzen da.
- ☉ Ernamuina atrofiatu egiten da eta ilea berriz irtatetea galarazten du.
- ☉ Tratututako zonaldean, ilearen %80tik gora ezabatzen duela bermatzen du Depitotalek. Kasu asko eta askotan, ile gehiago kentzen da.
- ☉ Gainerako portzentoia ia igerri ere ez da egiten, ile oso hori edo zuriak izaten dire-eta.
- ☉ Tratamenduaren sesio kopurua faktore askoren eta oso desberdinen menpe dago (azalaren fototipoa, kolorea, ilearen lodiera, dentsitatea...)

Depitotal

***Animatu eta ekin zure tratamendu pertsonalizatuari!!!
Gainera bonu bai hartzeko aukera duzu !!!***

Izterondo eta besapeentzako, 3x2!

Orduetgia

Astelehenerik Ostiralera 09:30 12:30 / 15:00 - 20:00 - Asteazkenak 09:30 - 19:00 - Larunbata: 10:00 - 13:00
Upaiz zaharra, 1 behea - Tel.: 943 531 636 - Elgipbar

Genero indarkeria ezabatuz eta emozionalki heziz

Estatuan 40. emakumea hil dute, genero indarkeriaren ondorioz, EAEn laugarrena, eta iritzi artikulua irakurtzen duzue nerako agian kopurua handiagoa izango da. Nire baitan hau entzutean behin eta berriz galdera bera: nork dauka beste norbaiten bizitzarengan erabakitzeko lotsagabekeria? Dudarik gabe erantzuna, argia: inork ere ez. Baina hau ez da amaitzen. Amamak beti egon den zerbait dela esaten du, baina orain gehiago entzuten dela. Gaia lantzen eta ikertzen dutenek oinarria bizi dugun gizarte sexista honetan dagoela diote. Eta seguru guztiak arrazoia dutela.

Dudarik gabe, hezten dugun moduari buruz hausnartzen dudanean egiten dugunari buruzko duda asko sortzen zaizkit. Gure seme-alabak, gure ikasleak ez ditugu gurasook edo eta irakasleok bakarrik hezten, baizik eta beraiegan komunikabideek, lagunek... sekulako eragina dute eta jasotzen dutena, askotan ez da egokiena edo ez dago beraien beharretara egokiturik. Adibidez, gure gizarte honek ezartzen digun erritmoaren ondorioz guraso asko etxera heltzen garenean nekak gaude, eta nahiago dugu seme-alabak telebista ikusten egotea guk afaria prestatzen, labadora jartzen... dugun bitartean, beraiekin jolasten egotea baino; gainera gure baitarako zera pentsatzen dugu: ikusten ari dena Disneyko pelikula bat da, umeentzako; bidaltzen duten mezuei gehiegi erreparatu gabe. Emozionalki ere gure seme-alabak, ikasleak hezi egin

behar ditugu, sentitzen, irrikatzen, sufirarazten dutena, nahi dutena, arduratzen diena... adierazten erakutsi beharko diegu, entzun eta ulertu egin beharko ditugu. Guzti hori egiten dugun bitartean argi izan beharko dugu nahi eta nahi ez mutilak ala neskak izan desberdin hezten ditugula, honex gero gure atzeko motxila oso beterik baitago eta nahi gabe hortik ateratzen ditugulako behar ditugun tresnak.

Eli
Moreno



"Nire txanda" atalean idatzi nahi baduzu, jarri zaituz gurekin harremanetan: 943 74 41 12 edo barren@elgoibarkoizarra.com

"Hezten dugun moduari buruz hausnartzen dudanean egiten dugunari buruzko duda asko sortzen zaizkit"

**ELGOIBARKO IZARRAREN BLOGA
ESTREINATU DUGU!**

IZARREN HAUTSA

*Ezagutzen ez dena
ezin delako maitatu*



**Egin
klik
eta
ikusiko
duzu**

www.elgoiBARREN.net



AGURTZANE EPELDE

UDAL EUSKALTEGIKO ZUZENDARIA



“Erabiliz,
euskara ikastea da
gure metodoa”

Orain dela 25 urte sortu zen Elgoibarko Udal Euskaltegia, 1983ko urrian. Agurtzane Epelde Iriarte hasiera-hasieratik ari da bertan lanean. Euskaltegiaren historia ondotxo ezagutzen du. Udal Euskaltegiak sasoi eta erronka berriei aurre egin behar izan die. Aldaketak ere izan dira: orain dela hamabost urte Deba eta Mutrikuko Udal Euskaltegiekin bat egin eta Debabe sortu zen. Orain, 25. urteurrena ospatzeko hainbat ekitaldi antolatzen dihardute: besteak beste, sasoi bateko argazkien erakusketa jarri dute euskaltegiko sarreran (asteburuetakako barne-tegiak, irteerak e.a); abenduaren 3an *Euskara sencilloaren manifestua* antzezlanana eskainiko dute, eta martxoaren 28an kantu bazkaria izango da oraingo eta lehengo ikasleentzako.

Matrikulazioak zer gorabehera izan du 25 urtetan?

Jaitsi egin da asko. Orain dela 25 urte euskara pil-pilean zegoen. Elgoibarren ia berrehun bat matrikula egon ziren orduan. Eta moduluak ez ziren gaur egungoak bezalakoak. Lehenengo urteetan, hasi eta bost-sei urtetan, 25 orduko moduluak eduki genituen: goizean bost orduko klaseak astelehenetik ostiralera; gero hamar orduko moduluak ere egoten ziren. Gaur egun, moduluak jaitsi egin dira, jendeak beste lan batzuk edo beste ikastaro batzuk ere badituelako, eta hamarrekoa ia inork ez du nahi. Askok zortzi ordukoa hartzen dute. Aurten seikoak ere baditugu. Lehen euskara ikasi behar zuenak euskarari garrantzia ematen zion, eta astean 25 ordu ematen zituen euskaltegian. Gaur egun, ostera, barnetegietara doanak eta liberatuta dagoenak egiten du hori.

“Lehen euskara ikasi behar zuenak astero 25 ordu ematen zituen euskaltegian”

Euskara ikaslearen perfla asko aldatu da?

Lehen askok beharra zutelako etortzen ziren, langabezia zeudelako ere... Askok eta asko gaez etortzen ziren, euskara landu egin nahi zutelako, ikasi nahi zutelako, besterik gabe. Gaur egun, zoritxarrez, asko behartuta etortzen dira, Osakidetza lan egiten dutelako eta derrigorrez perfl bat atera behar dutelako. Motibazio instrumental horrek pisu handia du gaur egun. Azken bolada honetan Osakidetzakoekin gabilitza, eta bigarren perfla eskatzen dute. Hala ere, badaude beste-lako ikasleak ere. Interes pertsonala eta umei eskolako lanetan laguntzeko euskara ikasi edo hobetu nahi dutenak. Badaude interes handia dutenak, besterik gabe ikasteagatik, edo integratzeko. Atzerritarrak ere pila bat ditugu, goiz eta arratsaldez.

Orduan motibazioa anitza da orain...

Bai, seme-alabei laguntzeko premia ikusten dutenak, titulu bila dabilzanak eta interes pertsonalagatik ikasi nahi dutenak. Horiez

gain, dakitenari eutsi nahi diotenak ere badira. Batzuk pixkanaka-pixkanaka kalean erabiltzen hasiak dira, tertuliak direla-eta.

Aldaketa asko izan dira 25 urtean. Euskarazko egunkaririk ez zegoen, ez internetik, orain lan espezifikoagoak egin behar dituzue... Zelan egokitu zarete sasoi berrietara?

Egokitu egin behar izan dugu. Lehen pentsaezina zen: ordenagailuekin eta euskara irakasten. Teknologia berriak gero eta gehiago erabiltzen dituzte ikasleek. Entzungaiak lortzeko metodoen batek zeukan zinta lortu behar zenuen. Guk grabatu eta etxera eramaten zuten. Gaur egun, hau esaten diegu: “Sartu zaitez *Ikasbil*-en, klikatu hor eta bertako entzungaia entzun. Ariketak bertan daude”. Gure lan egiteko modua aldatu egin da tresna berriak ditugulako. Beste alde batetik, ikasleei begira, eskaintza dibertsifikatu egin da: *Aisa* dago etorkinentzako; ostalaritza, merkataritza eta gurasoentzako materialak sortu dira. Lehen ez geneukan ezer ere.

Autoikaskuntza metodoak erabiltzen dituzue?

Boga-k etxetik ikasteko aukera ematen du, on-line. Astean behin ordubate euskaltegira etorri behar dute, aurrez aurreko saiora. Hamabostean behin tutoretza egiten da, egingako lanaren jarraipena egiteko. Osakidetzako langileentzako ikastaro berezia ere eskaini genuen orain dela bi urte, on-line; berez saio mixtoa zen: aurrez aurreko bi saio astean egiten ziren, eta beste ordu batzuk ordenagailu bidez.

Hasieratik hona irakasteko metodoak asko aldatu dira?

Nik neuk ez dut metodo zehatz bat erabili inoiz. Erabili ditut hemengo irakurgai batzuk, hango entzungai batzuk eta abar. Ni orain lehenengo urratsetan ari naiz, eta hor dago *Aisa* liburua, etorkinentzako, baina maila baxuetarako ere erabili dezakezu. Bai, aldatu da, laguntza gehiago dago, eta internet bidez atera ditzakegu entzungai, bideo edo irakurgaiak. Irizpidea eginkizunen bidez ikastea da. Hizkuntzaren barruko zerak ikastea baino, eginkizunen bidez euskara ikastea da metodologia: gauzak eginez, klasean erabiliz... Hori bultzatu nahi dugu, hori da oinarria, erabiliz ikastea.

Mutriku eta Debako euskaltegiekin batera Debabe osatzen duzue. Zaila da hiru herritan lan egitea?

Baditu eragozpenak. Hiru toki dira eta mugitu

egin beharra dute irakasle batzuek. Mugitze horrek denbora ere kentzen dizu. Baina alalde onak ere baditu: ikasle gehiago ditugu, eta jende gehiagorengana heltzen gara.

Soziolinguistikoki herri ezberdinak dira.

Mutriku oso euskalduna da eta goi mailako taldeak izaten dira. Deba berezia da, nahiz eta oso euskalduna izan erabilera ez delako handia, hara kanpoko jende asko joan da-eta.

“Lan egiteko modua aldatu egin da, tresna berriak ditugulako”

Elgoibarren euskaldunak alfabetatzeko kanpainarik egiten duzue?

Sasoi batean egin genuen, azkena orain dela hamar bat urte. Baina orain jendea ez da animatzen. Aurten, esate baterako, bat etorri da horretarako, eta klaseak ez dira sortzen. Dena dela, gaur egun alfabetatu gabeak topatzea zailagoa da. Gutxi-asko denok dakite, **BARREN** irakurri dutelako edo, aditzak bereizten, hatxeak jartzen eta eseak...

Hainbat urtetan jendeak euskara ikasi arren, erabilerak ez du gora egin. Non egiten dugu kale eta zer egin daiteke?

Hori ez da bakarrik helduengan pasatzen, umeekin ere grratzen da. Tertulien bidez erabilera bultzatu nahi da. Egoera zeharo aldatzen da bailara batetik bestera: Azpeitia aldean kalean egiten dute nagusiek eta giroa zeharo diferentea da. Horrez gain, umeak adin batera heltzen direnean gurasoei akatsak zuzendu egiten dizkiete, lotsa izaten dute, eta erabiltzeari uzten diote...

Tertulietan parte hartzen duzue. Zer mailatan? Ikasleak bideratzen dituzue?

Bai, laugarren urratsetik aurrerako ikasleek parte hartzen dute. Oro har pozik dabilta, jarraitu egiten dute. Tertuliak oso ondo daude, baina zure harreman sarean sartu behar dituzu euskara erabiliiko duten pertsonak.

Euskara maite zuen gizona

Gotzon Garate idazle eta euskaltzalea hil da

Gotzon Garate idazle eta euskaltzalearen heriotzarekin esnatu zen eguazten goiza. Minbiziak jota zegoen elgoibartarra, eta azken hilabeteetan gogor egin zuen borroka gaixotasunari aurre egiteko. Ebakuntza zailak egin zizkionten, eta, azkenik, urriaren 8an minbiziaren kontrako guda galdu egin zuen. Orain dela hamabi urte *Euskaldunon Egunkaria*-ko Kate Motzean sailean elkarrizketa egin zion Imanol Murua Uria kazetariak Gotzon Garateri, eta heriotzari buruz galdetu zion. Hauxe izan zen bere erantzuna: “Egia esaten dizut: beldurrik gabe. Oso ekologista naiz eta uste dut beharrezkoa dela hiltzea. Neure tokia beste bati lagatzeak poz ematen dit”. Izango al da bere lekua beteko duenik!

Gotzon Garateri buruzko informazio gehiago: www.elgoibarren.net

1934ko irailaren 1ean jaio zen Gotzon Garate Elgoibarren, eta 11 anai-arrebatatik, bera zen gazteena. Plaza Txikian hasi zen eskolan, eta matematikak eta hizkuntzak oso gogoko zituen. Umetatik hizkuntzak ikasteko grina erakutsi zuen, eta bederatzi hizkuntza hitz egiten zituen. Hala ere, “nire erraietako hizkuntza euskara zen”, adierazi zuen behin baino gehiagotan. Euskarari lotuta eman zuen bizia, ikasten eta irakasten. Euskararen eta euskal literatura-aren adierazle nagusienetakoa zen.

Hamabi urterekin Durangora joan zen ikastera, eta, berak askotan adierazi zuen moduan, orduan hasi zen euskal kontzientzia hartzen. 1953an Loiolan sartu zen Jesuita. Ikasketak ezin izan zituen euskaraz egin, garai hartan den-dena espainolez edo latinez idatzita zegoelako. Euskal senari ezkutuan eta gazteleraren itzaletan etsi zion.

1960an, 26 urterekin, Zaragozara joan zen filosofia eta grekoa irakastera. Bi urte geroago Innsbruck-era joan zen teologia ikastera eta hiru urtera apaiztu egin zen. Suitzan burutu zituen marxismo ikasketak, eta

Deustuko unibertsitatean hasi zen marxismo eskolak ematen.

Frankismoaren ondoren, euskal filologia ikasketak sortu zituen Deustuko Unibertsitatean. Garateren iritziz, hori izan zen berak egindako ekarpenik garrantzitsuenak. Behin eta berriz errektoreari egin zion eskaera, eta honek ezezkoa erantzuten zion beti. 1977ko maiatzean artikulua bidali zuen egunkarietara: “El próximo curso comienza la filología vasca en Deusto”. Zalaparta handia sortu zuen artikulua hark. Hura izan zen euskal filologiaren lehenengo pausoa. 2006an omenaldia egin zioten Deustuko Unibertsitatean, ikasketa horiek sortu zituela 30 urte bete zirelako.

Mundu osoan zehar ibili da Gotzon Garate. Bidaiatzea gustuko zuen, eta batez ere, New York maite zuen. Ameriketatik istorio odoltsu asko ekarri zituen nobela beltzari esker, eta berak idatzitako polizia-eleberririk oso ezagun egin ziren.

Gauza guztien gainetik, euskaltzalea zen batez ere, Gotzon Garate. 30 urte baino inguru egin zituen Euskal Herriko sei herrialdeetan baserri-



baserri ahozko euskara biltzen. Euskarak mugiarazi du beti Gotzon, eta doktore tesia izan ezik, beste guztia euskaraz idatzi du. Ondare handia laga du Gotzonek. 30 liburu baino gehiago idatzi ditu, eta hainbat sari jaso izan ditu bere ibilbidean. Bera izan da irakurrienetarikoa euskal idazlearen artean.



HASIER ETXEBERRIA
Idazle eta kazetaria

In memoriam

1965 urte inguruan, Elgoibarko ikastola arkaiko hartan, atletik barrura egin zuenean, bazekarren halako lepoko zuri bat. Estralurtar bat zen, baina abadea ere bazela esana zigiten. Huraxe zen sotanarik gabe ikusitako lehena. Gainera, ez zuen beldurrik ematen eta iri zabal baten laguntzaz, “nire izena Gotzon da, zuek bai ume zoragarriak!” esan eta gero, gitarratxo batekin hasi zitzaigun kantari: “Ameriketara joan nintzen, xentimurik gabe...”. Hura bai txin-txina guretzat!

Etorri bezala egin zuen alde estralurtarrak. Harrezkero dakigu, munduan bideak ugari direla eta izaerak ere pertsonak bezainbeste. Halako izaki arrarorik sekula ezagutu gabekak ginen, eta euskalduna zen, gainera. Eta guztiz jatorra.

Gizon haren oroitzapenak irmo iraun zigun berriro bistartu zitzaigun arte: gaztetxo ginela irakurri genizkion Marxen marxismoa eta antzeko liburu ikaragarri sakonak. Erdirik ere ez genion ulertzen ahal. Hain zen jakintsua!

Egun batez, ez dakit nora nindoala neure autotxoan, estralurtarra ikusi nuen urrutira, bide ertzean autostop egiten.

Aldatu egin nuen norabidea alienigena hura neronek eraman ahal izan nezan. Baserri batera zihoala gogoratzen naiz. Euskara ikasten ari zela esan zidan eta ene buruari galdetu nion nola arraio ote zitekeen, euskara hain ondo eta bizi hitz egiteaz gain, dozena bat hizkuntza ezagutzen zituen gizona, baserri sukaldeetan sartuta ibiltzea. Atsotitzen liburu esker ezinak ekarri zuen erantzuna beranduago.

Gerora ere halaxe egin da presente ene bizitzan: orain agertu, orain desagertu, baina, esan bezala, beti jakin dut hor nonbait dabilela, munduan barrena. Geure mesedetan.

Halako batean, polizia eleberririk argitaratzen hasi zen, eta ni irakurtzen. Esaten zuen munduko literatura guztietan dela beharrezkoa literatura beltza. Azkenean, neronek egin nion elkarrizketa luze-zabal bat 2005ean, eta horrek are gehiago hurbildu gintuen biok: pentsamendu sakonekoa, epelkeriarik gabe eutsi egiten zion gauza guztien aurretik bere herri eta hizkuntzaren maitasunari. Gora Euskal Herria askatuta!, esango zizun gutxien uste zenuenean. “Euskara ez da hilko, geuk ez badiogu hiltzen uzten”.

Esango nuke ez dudala ezagutu gizonik hainbeste mugitu izan denik, hainbeste jende ezberdin ezagutu duenik, hainbeste kultura menderatu duenik... eta,aldi berean, gizakia, bere akats eta guzti, hainbeste maite izan duenik.

Orain ere belarrira ari zait esaten: “Ez egin negarririk, eta segi lanean jatorki. Etorrizuna geure esku dago, ederki dakizu hori”. Hala bedi.



AINHOA LENDINEZ
Gotzon Garateren iloba

Agur eta ohore

Astearte gauean ez dut lo sakonik egin. Ezkila hotsak nituen buruan. Jira eta buelta izara artean. Esnatu nintzen asteazkenean, inoiz lorik hartu banuen, eta ezkila hotsek zugana eraman ninduten. Joan zara. Ikaragarri sufrituta. Ezin esango dizut orain, lehen esan ez dizudanik. Baina paperak zuriz uztea baino gauza gogorragorik gutxi da.

Uda aurretik joan behar omen zenuen, eta uda ostean joan zara. Negua baino gogokoago zenuelako uda, seguru. Negu gorriari ihes egin nahi izan diozula pentsatuko dut beti, eta udaberriko lore artean imajinatuko zaitut zure bide berrian. Izan dadila loretsua hemen izan duzunaren pare. Liburu bat besapean, eta irribarrea aurpegian, gazteekin solasean.

Korrika nindoala Sallobenteko baserriak ikusi ditut. Eta Zuberoako basetxeak etorri zaizkit gogora. Zenbat etxandre izango dira sutondoan, zu gogoan, negarrez. Nork jasoko ditu baserri ondoko esaerak? Euskal Literaturaren urrezko orrietan geratuko zara betiko.

Hedabideek lau haizetara zabalduko dute zure izena, baina nik nire oroimenean nahi zaitut iltzatuta: “Tomate erdi, ala tomate erdia?”, “joan behar dut, ala joan behar naiz?”, zenbat galdera egin dizkizudan, eta zenbat ditudan erantzun gabe oraindik. Izan ere, beste ezerk baino gehiagok pozten zintuen euskararako, euskaraz eta euskaratik bizi naizela jakiteak. Inor baztertu gabe, ezer gutxietsi gabe, euskalgintzan ari garenek pozik bizi garelaren esaten zenidan, “herriaren alde ari garelako”.

Ezagutu zaituen pertsona bakoitzak oroitzapen bat gordeko du zure izenaren alboan; nork bere “Gotzon” izango du betiko. Eta nik beti izango zaitut euskarazko hitz eta idazlanetan, euskarazko kanta eta doinuetan. Beste inoiz ere esan dizut, osaba... zu niretzat: jesuita, idazlea, osaba, euskaltzalea... baina ororen gainetik, laguna. Besarkada handi bat.



BILDUMA

- *Lauaxeta menderik mende*
2005, Mendebalde Kultur Alkartea

HIZTEGIA

- *Erdarakadak*
1988, Gero

KRONIKA

- *New York, New York*
1988, Elkar
- *India harigarria*
2001, Elkar
- *Zakurra, zeure laguna*
2002, Elkar
- *New Yorkeko kronika beltza eta beste kontu periferiko batzuk*
2004, Elkar

NARRAZIOA

- *Lehortea*, 1979
- *Muskilak*, 1980, Mensajero
- *Nafarroako Ezkurran*, 1981, Gero
- *Aldarte oneko ipuinak*, 1982, Gero

NOBELA

- *Elizondoko eskutitzak*, 1977
- *Esku leuna*, 1977
- *Goizuetako ezkongabeak*, 1979, Zugaza
- *Izurri berria*, 1981
- *Alaba*, 1984, Elkar
- *Zilarrezko gazteluaren kronika urratua*, 1992, Gero

SAIAKERA

- *Marxen marxismoa*, 1971, Mensajero
- *Marx eta nazioa*, 1972, Mensajero
- *Marxen ondoko errebisionismoa, Rosa Luxemburg*
1974, Mensajero
- *Lenin eta nazioen autodeterminazioa*, 1980, Mensajero
- *Leninen marxismoa*, 1983, Mensajero
- *Euskal elaberrien kondaira - II*, 1985, Mensajero
- *Euskal elaberrien kondaira - III*, 1991, Mensajero
- *Euskal atsotitzak*, 1995, Gero
- *Atzerriko eta Euskal Herriko polizia eleberria*, 2000, Elkar
- *Euskal eleberrien kondaira - I*, 2001, Gero

AIPAMENAK

- «Lur hiztegi entziklopedikoa»
- «Harluxet hiztegi entziklopedikoa»

KRITIKAK

- *Esku leuna*
I. Zubizarreta, Zeruko Argia, 1978-12-03
- *Lehortean*
M. Hernandez Abaitua, Argia, 1981-06-07
- *Izurri berria*
X. E., Argia, 1982-05-02
- *Izurri berria*
J. de Kakabeltz, Pamiela, 1983-06
- *Hades-en erresumarantz*
X. E., Argia, 1984-02-19
- *Alaba*
I. Camino, Argia, 1985-01-13
- *Muskilak*
D. Zuazalde, Argia, 1988-05-22
- *Lehortean*
D. Zuazalde, Argia, 1988-05-22
- *New York, New York*
D. Zuazalde, Argia, 1988-12-18
- *Zilarrezko Gazteluaren kronika urratua*
E. Jimenez, Euskaldunon Egunkaria, 1993-04-18
- *India harigarria*
A. Iban, Euskaldunon Egunkaria, 2001-10-20
- *Lehortean*
J. Rojo, El Correo, 2001-11-14
- *India harigarria*
J. Rojo, El Correo, 2002-01-16
- *Zakurra zeure laguna*
A. Etxebarria, Idatz & Mintz, 2003
- *Zakurra, zeure laguna*
F. Juaristi, El Diario Vasco, 2003-02-02
- *New Yorkeko kronika beltza eta beste kontu periferiko batzuk*, I. Auzokoa, Igela, 2004-10
- *New Yorkeko kronika beltza eta beste kontu periferiko batzuk*, J. Rojo, El Correo, 2004-12-01





San Frantzisko iturri inguruan urak gainezka egiten du: “Euria egiten duen egunetan sekulako putzua sortzen da San Frantzisko iturri inguruan dagoen espaloian. Aldapa dago, eta urak gainezka egiten du. Badirudi estolda itxita dagoela, eta garbitzeko beharra dago”. ⇒


Jende askok ez ditu txakur kakak garbitzen: “Aste honetan bertan bi lekutan ikusi ditut txakur kakak. San Bartolome kalean txakur morkoia zapaldu eta labainduta ia erori egin nintzen, eta Artekaleko eskailera mekanikoen alboan ere ikusi nuen beste kaka pila bat. Txakur jabeek kontzientzia hartu behar dute gai honen gainean, eta bakoitzak bere txakurraren kaka garbitu egin behar du. Herria asko desitxuratzten da”.



Zuen kexak, galderak edo txaloak bidaltzeko:
barren@elgoibarkoizarra.com / 943-74 41 12



Txalo bat Errosario kaleko jaiak antolatu dituztenei: “Txalo bat eman nahi diegu aurten ere Errosario kaleko jaien antolakuntzan jardun dutenei. Kale txikia da, baina jai handiak izan dira. Errosario kaleko bizilagunen-tzako esanahi handia daukate jai horiek, eta horren alde lan egiten dutenak eskertu nahi ditugu. Ekintza xume baina politak izan dira aurtengo jaietan, eta parte hartu dugunok primeran pasatu dugu. Segi horrela urte askotan”.



GOTZON GARATE GOIARZUN

Agur eta ohore

*Bihotzez eskertzen dugu
utzi diguzun ondarea,
zu joan zara
baina zuk egindakoak
gugan iraungo du.
Ohore bat izan da herriarentzat
zu bertako seme izatea.
Agur, ez adiorik.*



Elgoibarko Udala



BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enrantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

Elgoibar gure herriko klubari dedikatua

Berriz ere gure bankilloko umeen porrota ikusi dut. Ume horiek entrenamendu guztietara eta partidu guztietara joaten dira, ilusioz beteta. Beharbada, horietako asko ez dira Etxeberria bezain onak izango, baina gogoz aritzen dira asteburuko partiduetan, bankilloan eserita egoteko.

Entrenatzaileak partidua amaitu aurretik ateratzen ditu berdegunera, bost edo hamar minutu bakarrik. Bien bitartean, beheragoko mailan diharduten hainbat jokalarik partidu guztia jokatzen dute bi mailetan. Zergatik? Ume horiek euren gurasoak zuzendaritzan egotea behar dute? Jokatzeko gogoia duten 12, 13, 14, eta 15 urteko umeak dira.

Nire ustez, ume guztiei aukera berberak eman behar zaizkie, eta ez batzuei bakarrik. Entrenatzaileek eta zuzendaritzakoek egoera honen gaineko hausnarketa egin behar dutela iruditzen zait. Umeak baino ez dira.

V. G. ☺

DJ Barriori

Lagunek izen egokia jarri dizute, DJ Barrio.

Ni zure auzoko bizilaguna naiz, eta zin dagizut auzora heltzerako, badakigu etxean zaudela, eta nola ez, zertan ari zaren. Zure etxe inguruan jende asko bizi gara, era guztietakoak, adin eta bizimodu guztietakoak. Haur txikiak bizi dira, hiru lan-txandatan lan egiten dutenak, ikasleak... eta jasan ezinezkoa da musika entzuten duzun bolumena. Ezin dugu egunez lorik egin, ez ikasi, ez irakurri, ez guk nahi dugun musika entzun... zurea bakarrik da nagusi. Esan dizugu, mesedez bolumen

hori bajatzeko, baina ez duzu kasurik egiten. Zu bakarrik bizi zarela dirudi, eta hori ezin dugu jasan. Errespetu pixkat eskatzen dizut, mesedez.

DJ izatea nahi duzula diozu, eta hori ezin dizut ukatu. Zure bizitza profesionala oparoa izan dadila nahi nuke, baina mahai hori erosten duzunean, auzokoekin gogoratzuz, kaskoak erostea gomendatzen dizut, aspaldi asmatu baitziren. Denok eskertuko genuke horrelako keinu bat.

H. I. ☺

“De Guatemala a guatepeor”

Gaur egun informazio asko dagoela esan zuen batek tabernan. Bai, baina nongo informazioa? Badakizue Saturixon errota daudela edo Mendaron kataratak? Nongo informazioa da eskuragarria eta zein interesegatik jarri dute eskuragarri? Elgoibarren bizi gara. Eta badakigu zer izan zan, nun bizi garen eta zertan bilakatu nahi dugun?

Hasteko, ez dago zelai edo berdegunerik herrian. Zaborra pilatzen zen lekuetan Mintxeta, eta orain Albitxuriko industriagune erraldoia ari dira eraikitzen. Eta hori da klabea; eraiki. Zer eraiki garapenaren izenean? Lehenetsuna izan beharko luke naturak, baina ama lurra txikitzen ari dira errespeturik gabe: Morterikako proiektua, barianteak, Albitxuri eta etxebizitzaren eraikitze amaigabeak.

Non dago beste Elgoibar eredu bat? Bide gorriak, herri baratzak, baso publikoak, zelaiak, erreketan bainatzeko aukera...

Natura sentitu egin behar da bizitza osasuntsua izateko, baina agintarietako naturatik urruntzen gaituzte, eta hori ez da posible.

P.D. Hori bai, Abiadura Handiko Trenean ordu erdian Bilbotik Donostiara, Gasteiztik pasatuta. Hori bai dela naturala!

Aitor Rosario ☺

Barren

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea

Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR
 ☎ 943 74 41 12
 Faxa: ☎ 943 74 37 04
 E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com
 Publizitatea: ☎ 943 74 37 04
 E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

Argitaratzailea:





Unai
Arrieta

Ergelkeriaz jositako eguneroko posta elektronikoa anitzuen uhodetik mezu bat erreskaturatu dut gaur. Mensajes del



Zuhaitz
Gurrutxaga

agua zioen izenburuak, YouTube

webgunera eraman nau bertan zetorren estekak. Medikuntza alternatiboan aditua den Masaru Emoto japoniarraren esperimendu bati buruz dihardu bideoak. 20 urteko ikerketa-lanaren ondoren uraren eta giza kontzientziaren artean egon litekeen lotura frogatu omen du. Pentsamenduek, sentimenduek, hitzek eta musikak uraren egitura molekularrean duten eragina agertu du doktore japoniarrak. Pentsamendu eta hitz baikorren ondorioz uraren molekulek egitura simetriko perfektua hartzen omen dute, osotasun ordenatu bat bailitzan. Pentsamendu eta hitz ezkorrek aldiz uraren molekulak nahastu, zatikatu eta desitxuratzen dituztela dio Masaru Emotok.

“Pentsamendu baikorrek lotura hertsia dute autoestimuan, bizipoz eta grinarekin”

Sinesgogor agertu ohi naiz sari halako kontuen aurrean, eszeptiko. Akaso zalantzakoa izan liteke japoniar medikuaren saiakuntzaren zientifikotasuna baina zer pentsa sorrarazi dit, Zuhaitz. Ehunetik hirurogeita hamar ura baldin bagara, zer eragin izan lezake pentsamenduak gudan?

Jakina da pentsamendu baikorrek eta bakarrizketa optimistek lotura hertsia dutela, bizitzaren etortze horri aurre egiteko ezinbesteko ditugun autoestimua, bizipoz eta grinarekin. Nago, kirol-errendimenduan ere berebiziko garrantzia duela begirada ilun eta gauduetatik urrun, egoerei alderik hoberenetik gogor egiteak.

Gogotsu ekin al diozu, Zuhaitz, Irun aldean hasi berri duzun ibili berri horri?

Oinezan ekin nion San Migeleranzko bideari tipi-tapa. Ilunabarra zen, eguzkia bere masail gorri eta guzti, Kalamuaren bizkarretik izkututzen zihoan lotsati. Auzora iritsi bezain laster baserrira egin nuen bisita. Bertan aitonaarekin aritu nintzen tertulia jatorrean ardo baso bana mahai gainean genuelarik. Gu-

da garaiko istorio mordoa arretaz aditu ostean, plazarantz abiatu nintzen. Jai giroa zen frontoian. Erromeria dotorea. Trikitilariak eskainitako musikaren erritmora dantzan ari ziren auzoko neska eta mutilak. Neronek ere hankak gogoz astindu nituen irri eta barrez lagun arte ederrean. Festa bukatu ondoren, eta aspaldiko adiskideen besarkadak jaso ostean, etxerantz abiatu nintzen. Zerua garbi zen eta ilargi bete polit hark argitu zidan bidea. Etxeko sukaldean ama neukan zain eguneko jardunak entzuteko prest. Berriketan jardun genuen denbora luzez katilukada esne konpartitu genuen bitartean. Ohera bidean, nola ez, gauero bezala muxu goxo bat oparitu zidan eta ametsik atseginenetan murgildu nintzen manta epele- z estalita.

“Denok ditugu inguruan baikor sentiarazten gaituzten gauzak”

Hara hor, Unai, ipuin samur batean, hogei hitz azpimarratuta. Zientzilari japoniar horrenak egiak balira eta ni neu ur tanta erraldoia banintz, argi dut hitzok entzun ostean egitura simetriko perfektuetan perfektuena hartuko luketela neure molekulek. Denok ditugu inguruan, urrunera joan beharrik gabe, baikor sentiarazten gaituzten gauza arrunt bezain handiak. Bila hastea besterik ez dugu falta.



Elgoibarko Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



Datorren urtean 59 garaje jarriko ditu saltzen Jaurlaritzak Santa Anako babes ofizialeko etxeetan

Etxeetako giltzak banatzen hasten direnean zabalduko dute izena emateko epea

Eusko Jaurlaritzaren mendeko Visesa erakundeak 59 garaje jarriko ditu saltzen datorren urtean, 2009an, Santa Ana kaleko babes ofizialeko etxeetan. Etxebizitzetako giltzak banatzen hasten direnean zabalduko dute garajea erosteko izena emateko epea.

Adjudikazioa, zehazteke

Santa Ana kaleko proiektuak 99 etxe hartzen ditu: guztiak ganbara eta garajearekin. Garaje horiez gain, beste 59 egingo dituzte, saltzeko. Visesak azaldu du garajeak etxebizitzak banatu eta gero jarriko dituztela salgai: "Momentua iristen denean, publikoki zabalduko dugu izena emateko epea, eta irteresa dutenak gurekin jarri beharko dira kontaktuan", azaldu dute.

Pisuak zozketa bidez adjudikatu baziren ere, garajeen kasuan, eskaera hartuko dute kontuan: "Oraindik zehazteke dago zelan adjudikatuko ditugun garajeak, baina, normalean, izena zein ordenatan eman den edukitzen da kontuan. Hala eta ere, eskaera asko jasoz



gero, beste bide bat aukeratu beharko da: enkantea, adibidez.

Prezioa

Garajeen prezioari dagokionez, Visesak merkatuko prezioak edukiko ditu

kontuan: "Tasatzaile bat kontratatuko dugu, eta berak jarriko du prezioa; hori bai, prezioa finkatzerako orduan kontuan edukiko du babes ofizialeko etxebizitzak dauden inguruko garajeen prezioa", zehaztu dute.

Altzolako zubia garbitu eta saneamendu lanak egiteko obra martxan dago



Altzolako zubia garbitu eta saneamendu lanak egingo dituzte. Aikia enpresa arduratuko da lanak egiteaz, eta astean zehar jarri dute lanak egiteko aldamia.

Udalak adjudikatutako obra da eta berak azaldu du zubian egingo dituzten lanak zeintzuk izango diren: "Zubiaren paretean itsatsita dagoen huntza kendu, harria garbitu eta txukun ipiniko dute". Lan horiek egiteko hilabete inguru beharko dutela ere gaineratu du Udalak.

Lanak egiteko jarri duten aldamia ikusteko modukoa da. Izan ere, Estructura zubiaren oinarrian hasi eta alboetatik zintzilikatzen da, ibaiaren ubidea ikutu gabe. "Aldamio hori beharrezkoa da ibaia hazterakoan ez botatzeko; beldurrik gabe lana egiteko".

Lekua **Olasoko kanposantua**



Olasoko kanposantuan komun publikoak jarriko dituzte. Hilerriaren alde zaharretik berrirako egin duten bidean kokatuko dituzte komunak. Dagoeneko lanean ari dira, eta denbora gutxi barru egongo dira erabiltzeko moduan. Ricardo Garate hirigintza zinegotziaren arabera, komunen premia handia zegoen hilerri inguruan. Bere esanetan, jende asko joaten da egunero kanposantura, eta komun publikoak ezinbestekoak dira horrelako guñe batean.

Zenbakia **17**

Urriaren 26an Elgoibarko hamazazpi odol-emaileria omenaldia egingo diete. Odo-la 50 aldiz eman duten gizonak (Justino Badiola, Julio Garcia, Angel Garcia eta Juan Manuel Mekolalde), 40 aldiz odola eman duten emakumeak (Jone Garcia, M^a Isabel Mujika eta M^a Pilar Osoro), eta 25 aldiz eman duten herritarrak (Marivi Agirregomez-korta, M^a Pilar Aranzabal, Paulo Arriola, Rosario Barrainkua, Camilo Conde, M. Angel Dominguez, Miguel Fernandez, Inazio Garmendia, Cristina Gorriti, Lorea Zubizarreta). Arraten izango da omenaldia. Meza izango dute lehenengo, eta ondoren bazkaria Kantabria jatetxean. Interesatuak 943 743 257, 943 740 551 edo 943 740 302 telefonoetan eman dezakete izena.

Irudia **Arrainak hilda Deba ibaian**

Arrain mordoxka bat hilda agertu dira aste honetan Deba ibaian, Elgoibar, Altzola eta, batez ere, Mendaro inguruan. Horren arrazoiak argitzeko asmoz, Deba ibaitik ura jaso eta aztertu egingo dute Gipuzkoako Foru Aldundiko Ur Zerbitzuko kideek. Beste batzuetan ere gertatu izan dira antzerako kasuak. Orain dela pare bat urte, esaterako, zianuro isuri batekin pozondu ziren Deba ibaiko hainbat arrain.



Lapurretengatik kezka sortu da Elgoibarren

Joan zen asteburuan, Pedro Muguruzako lokal batean sartu ziren lapurrak. Domeka goizaldean izan zen. Bizikleta bat ostu zuten, eta arrastoak ezabatzeko asmoz, sua eman zioten bertan zeuden paper batzuei. Suhiltzaileek itzali zuten sua. Bestalde, Santa Klara-ko etxe batean osten ahalegindu zirela ere zabaldu zen Elgoibarren, eta horrek ere kezka sortu zuen. Dena dela, ez zen horrelakorik gertatu eta gaizki ulertu bat izan zen.

Kiribil barraskiloaren azken saioa, gaur

Kiribil barraskilo erraldoiak agur esango du gaur arratsaldean, eta datorren udaberrian itzuliko da berriro. Kribilka egitasmoa Elgoibarko Izarrak antolatzen du, eta gustura daude aurtengo emaitzarekin. Saiotara, batez beste, 150 ume gerturatu dira, eta gurasoen parte hartzea nahi bestekoa izan ez bada ere, giro polita izan dela adierazi dute. Arratsaldeko 17:30ean izango da azken saioa, Plaza Handian.

San Migel jaietako errifaren zozketa

San Migel jaietan zekorria zozketatu zuten antolatzaileek. Zenbaki saritua 3.387 izan da, eta ordezkoa 243. Irabazleak urriaren 15era arteko epea izango du saria jasotzeko, bestela ordezkoak eskuratuko du zekorria.

Pilar Ikastetxearen jaiak, domekan

Datorren domekan, urriak 12, Pilarreko Ama Birjinaren eguna izango da, eta Pilar Ikastetxeak bere jaiak ospatuko du. Eguerdiko 12:00etan meza izango da ikastetxeko gimnasioan, eta ondoren, guraso elkarteak luntxa eskainiko du. Ikastetxeko ikasle, irakasle eta guraso guztiak daude gonbidatuta.

Azken urtea soldatarik jaso gabe jokatu du futbolariak Athletic-en.

Zer iruditzen zaizu Joseba Etxeberriak kobratu gabe jokatzeari?



Iñigo Arriola

41 urte, langilea

Ondo ikusten dut. Bera izan da lehenengoa, eta apur bat harritu nau albisteak. Keinu polita izan da. Diruak daukan garrantzia ikusita, miresteko moduko erabakia hartu duela deritzot.



Miguel Montes

11 urte, ikaslea

Ondo iruditzen zait, garrantzitsuagoa da berarentzat jokatzeari dirua irabaztea baino. Ni Realekoa naiz eta nahiago nuke, kobratuta balitz ere, Realean jokatu balu Joseba Etxeberriak.



Consuelo Prieto

56 urte, langilea

Oso ondo, gehiagok egin behar harko lukete. Elgoibarren ize-na leku onean laga du Etxebek. Askotan gauza txarrenatik ateratzen gara telebistan, eta horrelako albisteek poza ematen dute.



Juanjo Martin

25 urte, langabetua

Berak jakingo du zergatik hartu duen erabaki hori. Diru nahikoa izango du, eta ez du soldata beharrik izango. Ez zait futbola gustatzen, eta, egia esanda, ez zait inporta.

10^{eko}
TXIKIAN



ANDONI
ETXEBERRIA

Muntatzaillea

1. Herriko txokorik gustukoena?

Elgoibar osotik gehien gustatzen zaidan tokia Plaza Handia da.

2. Eta zatarrena?

Bi toki aukeratuko nituzke: Madalako etxeetako portikoa, eta BARRREN aldizkariaren kanpoko gunea, batez ere, bigarren hori. Gainera, erredakzio erosogoa behar du aldizkariak.

3. Nolakoak gara elgoibartarrak?

Zabalak, irekiak gara oro har.

4. Egia da jendea oso gutxi mugitzen dela?

Ez dut uste, nik neuk giroa ikusten dut herrian.

5. Aukeratu egun bat lagun bat herrira gonbidatzeko.

Gabonetan ekarriko nuke laguna herrira; batez ere, Gabon Zahar Ferria Egunean gonbidatuko nuke. Giro polita egoten da egun horren bueltan, asko gustatzen zait.

6. Bainatuko gara inoiz Deba ibaian?

Ez, sekula ere ez gainera.

7. Ondo komunikatuta dago gure herria? Erabiltzen duzu garraio publikoa?

Nik nahiko ondo komunikatuta ikusten dut herria, aukerak badaude; hala eta ere ez dut gehiegi erabiltzen. Oro har, mugitzeko beharra dudanean, autoa erabiltzen dut.

8. Ahal izango bazenu, joango zinateke beste herriren batera bizi izatera? Nora?

Akaso Elgoibar laga eta herriz aldatuko nintzateke, baina, lana dela eta, bertan geratu behar dut, Elgoibarren.

9. Elgoibartarra naiz eta harro nago?

Bai, oso harro gainera.

10. Behar duzun guztia daukazu herrian?

Ez. Pare bat gauza faltan botatzen ditut. Adibide batzuk jartzearren: Plaza Txikian lau pisuko aparkalekua jarriko nuke, primerako frontoia eta kiroldegi beste bat ere faltan somatzen ditut.

Gure berbak

Aditza (29): Agintera II

Aurreko astian, aginteraren adibide batzuk jarri genduzen. Ikusi gendun *jun hari* formia, konparazio baterako. Berez, *hadi* da forma hori, baiña Elgoibarren R eta D nahastu egitten dira berba batzuetan (*biria/bidia, edo/ero...*), eta hala gertatu da aginterazkuetan ere: *etorri hadi* ⇒ *etorri hari*.

Gatozen aginterazko adibide gehixagorekin, kasu honetan, aditz iragan-korra daukenekin, eta hórrek aztertuko dittugu:

- ◆ *Laga'ik nobixia. Beste bost bat urtian laga'ik. Berakin hasteko gero, e! Disgusto haundi hori ez'ixok eman, bestela...* [laga (eg)ik]
- ◆ *"Hau begiratu'izu, eta ipiñi'zu etziko edo", esaten giñon.* [begiratu (eg)izu]
- ◆ *Markiña aldian-da entenui'ik hango euskeria!* [entendiu (eg)ik]
- ◆ *Benga! Su ema'ixok!* [ema(n) (eg)ixok]
- ◆ *-Hori preparau egin bihar da, denpora asko bihar jok. -Ba, ikasi'zue zela dan orduan hori.*
- ◆ *-Kend'ik hortik eskua, bestela horrek ebagi eingo dik eta!*

Gauza nabarmen bat gertatzen da kasu hauetan: soiñuen kontrakzioa gertatu da; berezko formia desgastatuz jua da:

- ◆ *Laga egik* ⇒ *laga'ik*
- ◆ *Begiratu egizu* ⇒ *begiratu'izu*
- ◆ *Su eman egixok* ⇒ *su ema'ixok*

Batzuetan, kontrakziua urrutirago juaten da:

- ◆ *Hartu egik* ⇒ *hartu'ik* ⇒ *hart'ik*

Jesus Mari Makazaga

Erretratu zaharra

1948

Jose Mari Gurrutxagak laga digu aste honetako erretratua. CD Elgoibarren partidu historiko batean ateratako argazkia da. Egun hartan, Gipuzkoako Afizionatuen mailako finala jokatu zuten Bergarako Agorrosin futbol zelaian, Elgoibarrek eta SD Mondragon taldeek. Bi horiek kategoriako talde indartsuenak ziren garai hartan, eta elkarren aurka jokatzeko zuten bakoitzean ikusmin handia sortzen zen. Elgoibartar mordoia joan ziren partidu hura ikustera. Elgoibar 2-0 aurreratu zen markagailuan, eta arrasatearrek berdintzea lortu zuten. Amaierarako minutu bat falta zela, epaileak Elgoibarren aldeko penaltia adierazi zuen. Jose Mari Igartua "Amaikabat" izan zen penaltia bota zuena, eta indartsu bota arren, atezainaren gorputzera joan zen baloia. Luzapenean, F. Ayesta eta Arrasateko Txantxoteren artean haserraldia izan zen, eta bi jokalaria kalera bidali zituen epaileak. Azkenean, 4-2 irabazi zuen Arrasateko taldeak. Gogoratu ditzagun talde hartako jokalariaik:

Goian, ezkerretik eskumara: Fernando Ayesta, Gabriel Gabilondo (†), Jose Mari Lizundia (†), Jesus Egaña (†), Cruz Arriola, Eulogio Etxeberria (†), Jose Mari Igartua (†).

Behean: Jesus Barrenetxea (†), Fernando Arberas+, Antonio Unzueta (Moskote) (†) eta Carlos Unzilla (†).



Clínica Oftalmológica
RECALDE
Oftalmologi Klinika

Plaza Barria, 2 - 2º - EIBAR
Tfnoa.: 943 201 844
www.clinicarecalde.com

NAHIDON?

Autodefentsa

Peio Plazak hainbat teknika erakutsiko ditu ikastaroan zehar

Erasotzaileei aurre egiten ikasten

Elgoibarko kiroldegian autodefentsa ikastaroa egiten ari dira hamahiru emakume. Egoera jakin batzuetan euren burua defendatzen ikasiko dute: momentuaren arabera teknika bat ala bestea erabilita. Peio Plazak emango dizkie horretarako tresnak. Urriaren hasieran hasi zuten ikastaroa asteen behin egiten dute, eguaztenetan, eta bi orduko klaseak izaten dira: 19:00etatik 21:00etara.

Edurne Burgaña



Goizaldeko laurak dira, bakarrik zoaz etxera bidean, eta halako batean, gizon batek eskutik heldu eta bere kotxerantz eroan nahi zaitu. Inor ez dabil kalean, eta badakizu, oihera egin arren, inork ez zaituela entzungo. Zer egin dezaitezke? Momentua iritsi arte, zertarako gai garen ez dela jakiten diote batzuk. Baina teknika batzuk ikastea ez dago soberan. Elgoibarko kiroldegian hamahiru emakume autodefentsa ikastaroa egiten ari dira, horrelako egoeretan euren burua defendatzen ikasteko.

Gaur egun, zoritxarrez, askotan gertatzen da sexu indarkeria. Hedabideetan askotan agertzen da beste emakume bat hil duela bikotekideak. Egoera ikusita, emakumeek autodefentsarako tresnak ikasten dituzte. Elgoibarko kasuan, Peio Plazak urriko lau asteazkenetan hainbat teknika erakutsiko ditu bi orduko saioetan: 19:00etatik 21:00etara.

**“Biolazio kasuetan,
ahal den neurrian
lasai egoten saiatu behar da”**

Autodefentsako teknikak zuzena, sinplea eta eraginkorra izan behar duela dio Plazak: “Autodefentsarako teknika pila bat daude, baina benetan eraginkorrak direnak behar dira. Ez adorno asko dituzten teknikak. Azken batean, zerbait eraginkorra egin behar da ihes egin ahal izateko”.

Ikastaroko lehen klasean norbaitek erasotzen zaituztenean zein jarrera hartu behar den ikasi dute: “Teknika jaki-

tea komeni bada ere, lehen pausua distantzia mantentzen jakitea da. Erasotzailea gehiegi gerturatzeko bazaizu, ez dituzu bere mugimenduak ikusten. Beti pausu bat atzera eman behar da, eta eskuak defendatzeko igo”.

Bost atal sentsible

Behin distantzia jarrita, hurrengo pausua, defendatzeko zein tokitan eta zelan jotzen den da garrantzitsua: “Gorputzeko atal sentsibleenak bost dira: sudurra, begiak, goiko ezpaina, lepoa eta genitalak. Baina jakin egin behar da zelan jo. Gaizki jotzen baduzu, erasotzailea haserretu, eta bueltan handiagoa jaso dezakezu”.

Horrela, gorputz atal batzuetan hainbat kolpe mota eman ditzakezu. “Adibidez, begietan joz gero erasotzailea despistatzea lortzen duzu. Eskuak begietara eramango ditu, ez du ezer ikusiko, eta zuk ihes egin dezakezu”, azaldu du ikastaroko monitorea.

Begian eman daitezkeen kolpeen artean, bi azaldu ditu: “Atzamar lodia begian sartu eta kanpokaldera arraspatu dezakezu. Edo, bestela, atzamar puntekin begian jotzea, latigoarekin bezala”.

Erasotzailea jotzerakoan, baina, norbere buruari minik ez ematen ere jakin egin behar da: “Ukabilarekin joz gero, eta ez baduzu teknika kontrolatzen, mina hartu dezakezu; gainera aztarnak geratuko zaizkizu, eta hori ez da komeni. Eskua itxita, eskuko alboarekin joz gero, ez duzu minik hartuko”.

Ukondoak, jotzeko tresna

Ukondoak ere erabili ahal dira kolpeak emateko: “Erasotzailea gertu dagoenean, ukondoak erabili ditzakezu. Sudurrean, ezpainean, edo bularrean jo dezakezu. Gainera, ukondoak atal gogorak dira, eta horrekin bi gauza lortzen dira: batetik, zuk zeuk minik ez hartzea, eta bestetik, erasotzaileari mina ematea”.

Eta azkenik, genitaletan kolpea. “Hori inork ezin du aguantatu. Distantziaren arabera bi motatako kolpea eman dezakezu: erasotzailea urruti badago, ostikoa, eta gertu badago, belauarekin jo”, azpimarratu du Plazak.

Autodefentsan ikasten dena gogorra izan daiteke, baina beharrezkoa dela gaineratu du Plazak: “Errealitateak horixe eskatzen du. Informatiboak ikustea besterik ez dago konturatuzeko”.

Momentuaren araberako erantzuna

Ikastaroan ikasitakoa praktikan noiz jarri ere jakin behar da. “Orain norbaitek kalean ordua eskatzeko geldituz gero ez ditugu teknika horiek erabiliko, adibidez. Bestalde, imaginatu mozkor batek eskumuturretik heltzen zaituela, baina 16:00ak direla eta herriko plazan zaudela, jendez ingurutatuta. Kasu hortan, nahikoa da eskua askatu eta guztiak entzuteko moduan esatea: “Aizu, mina ematen ari zara!”. Horrela guztiak konturatuko dira zerbait gertatzen dela, eta bakean utziko zaitu”.

Baina, mozkor berberak goizaldeko 4:00etan, leku ilun batean heltzen bazaitu, eta inguruan ez badator inor? “Orduan teknikak erabili beharko ditugu. Argi dago gauzez etortzen zaizunak mina eman nahi dizula. Ezin zara ezer egin gabe geratu”, uste du.

Gizonen baten eraso eta emakume batena ezberdinak direla ere azaldu du: “Erasotzailea esaten dugunean, argi eduki behar da ez duela zertan beti gizonezkoa izan. Emakumeek, normalean, ileetatik tira egiten dute, eta gizonezkoek ukabilak erabiltzen dituzte. Beraz, horrelako egoeretan eduki beharreko erreakzioa ezberdina da”.

“Hala, ileetatik heltzen zaituztenean, erasotzailearen eskuak heldu behar dituzu, eta babestu jotzen ez uzteko. Gero, zu zeu saiatu behar zara jotzen, edo aurrez azaldutako teknika bat erabiltzen askatu ahal izateko”, azaldu du.

Biolazio kasua da, akaso, ezezagun batengandik jaso daitezkeen erasorik gogorrena. “Biolatzen saiatzen badira, argi dago garrasika hasteak ez duela ezertarako balio, lortuko dugun bakarra erasotzaileak gehiago jotzea da. Ahal den neurrian lasai egoten saiatu behar da, eta besteak gutxien espero duenean, kolpea ematen saiatu: begietan, sudurrean... Horretarako, gugana gerturatu beharko dugu, eta horrek beldurra ematen badu ere, ihes egiteko era bakarra da”, nabarmendu du.



Erasotzaile baten aurrean distantzia jarri behar da eta eskuak altxatu zure burua defendatzeko.

PATXI PEREZ

Aktore eta zuzendaria

Patxi Perez antzerkian eta telebistan aktore lanetan ikusi ahal izan dugu; baina, orain, zuzendari modura dator Elgoibarrera. Gaur, 22:15ean, *Maldito Parne* antzezlaren aurrestreinaldia egingo dute Herriko Antzokian. Sarrerak aurrez erosi daitezke Kultur Etxean zortzi euroren truke, eta gazte txartelarekin sei eurotan. Zuzendariaren hitzetan, antzerkian ondo pasatu nahi zanez gero, ikusi beharreko antzezlana da gaur Elgoibarren egingo dutena.



“Elgoibarko publikoa oso apala da, gertukoa eta oso zabala”

Gaur, 22:15ean *Maldito Parne* antzezlaren aurrestreinaldia egingo duzue Elgoibarren...

Halaxe da bai. Estreinaldi ofiziala hilaren 12an, domekan, egingo dugu Irunen, baina, gaur egingo duguna aurrestreinaldia da.

Azken aldian Glu-glu konpainiakook asko zabilzate Elgoibarren...

Ikusten dudaren arabera, erlazio kontuengatik da. Herriko Antzokiarekin primerako erlazioa du Glu-glu konpainiak eta horregatik da.

Zergatik ikusi behar da *Maldito Parne*?

Batez ere antzerkira joan behar delako ikusi behar da, hori funtsezkoa da. *Maldito Parne* guztientzako ikuskizuna da, oso ausarta, eta atsegina azken batean. Ondo pasatu nahi izanez gero antzerkian, ikusi egin behar da. Baina, noski, zuzendaria naiz, eta zer esango dut ba! Gauza onak bakarrik esan ditzaket.

Martitzenean Elgoibarren egon zineten entsegua egiten. Hori beti egiten al duzue?

Ikuskizunaren prestaketa orain hilabete batzuk egin genuen, eta tartean uda egon denez, berriro hartu behar dugu antzezlana. Bira Elgoibarren hasiko dugula esan daiteke, eta komenigarria da errepasoa egin eta moldaketa batzuk egitea. Baina ez da normalena antzezlana egin aurretik herrian bertan egitea entsegua. Bira hasitakoan, ikuskizunarekin aurrera jarraitzen duzu, eta ez da entsegurik egiten.

Zelakoa da Elgoibarko publikoa?

Gozamena da. Aktore moduan etorri naiz beste konpainia eta proiektu batzuekin, eta sentsazioa oso-oso atsegina da. Publikoa oso apala da, gertukoa, eta oso zabala. Umore klabeen egindako antzezlana eskertzen dituzte elgoibartarrek. Hemen inguruan dagoen herririk onenetarikoa da zentzu horretan.

Orain zuzendari moduan zatoz, baina *Klikowsky* telebista ere aritzen zara aktore...

Ondo daramat bi alorretan lana egitea: biak batera egin ditzaket. Aktoreok txoriak garela esan daiteke, eta hainbat alpiste probatzen ditugu. Zentzu horretan ez dago inolako arazorik. Batez ere *Klikowsky* astean zehar grabatzen dugulako eta ez egun guztietan gainera. Eta antzerkiarekin primeran uztartu dezaket, asteburuetan izaten direlako emanaldiak. Gainera, etxetik gertu lana egiten denean oso ondo egin dateke lana. Opari bat da.

Aktore ala zuzendari nahiago?

Bi gauzak dira interesgarriak. Zuzendari paperetik asko ikasten dut. Aginduak nik eman behar ditut, gauzak oso argi eduki behar dira, eta guztia transmititzen jakin. Aktorea izateak erraztu egiten du lana, aktoreen arteko kodea naturalagoa delako. Bestalde, aktore lanetik zuzendaritza ona tokatzen zaizunean gozamena da. Ezin dut esan bata edo bestea nahiago dudarik.

2009ko egutegia osatzeko argazki lehiaketan 32 lagunek hartu dute parte

Abenduren erdialdean aurkeztuko dute

Elgoibarko Udalak eta Ongarri argazki elkarteak 2009ko egutegia osatzeko argazki lehiaketak harrera ona izan du. 32 lagunek hartu dute parte, eta guztira 88 argazki aurkeztu dituzte lehiaketara. Jendeak era guztietako argazkiak aurkeztu ditu: paisaiak, eraikinak, kaleak, txokoak, berezitasunak, jaiak, panoramikak..., baina gutxi izan dira herritarrak ageri diren argazkiak.

Udaleko bi ordezkariak (Euskara batzorde burua eta Kultura batzordeburua) eta Ongarriko beste bi ordezkariak osatu dute epaimahaia. Hilabete bakoitzeko argazki bana aukeratu dute, eta argazki bakoitza 50 euroekin saritu dute. Egutegia abendu erdialdean aurkeztuko dute. Elgoibarko argazkiez gain, hil berri den Gotzon Garateren "Atsotitzak" liburutik hartutako esaera zaharrak azalduko dira bertan; hilabete bakoitzeko esaera bana.



SARIDUNAK

Carlos Esteban Egurrola
Aitor Rementeria Totorika (2 argazki)
Jabi Leon Casado (3 argazki)
Angel Lopez Fariza
Arrate Iriondo Azkue
Jesus Bilbao Aizpiri
Angeles Ortuoste Arana
Txomin Castrillejo Gabilondo
Eider Iriondo Ansola

Astelehenetik aurera indigenei buruzko fillmak

"Herri indigenetatik komunikazioa eraikitzen" lemarekin astelehenean hasiko da Zinema Soziala. Aurten, Oaxacako Nazioarteko Herri Indigenen Zine eta Bideo Jaialdian eskainitako lanekin prestatu du Mugarik Gabek. Herri indigenen arteko komunikazioari laguntza eskaini nahi diote, gaur egungo hedabideetan ez direlako behar bezala agertzen. Emanaldi guztiak Kultur Etxeko hitzaldi gelan izango dira 19:00etatik.

Astelehena 13: *Eso viene sucediendo* (Mexiko, 12 minutu), *Inhaladores* (Australia, 15 min.), *Mi primer contacto* (Brasil, 56 min) eta *Soy defensor de la selva* (Ekuador, 23 min.).

Martitzena 14: *Voces del desierto* (Sahara, 56 min.) eta *Guatemala, tierra arrasada* (Guatemala, 42 min.).

Eguena 16: *Lo más difícil es el amor* (Norvegia 25 min.), *Sueños binacionales* (Mexiko, 30 min.) eta *La cabalgada espiritual* (AEB, 60 min.)

Barixakua 17: *El precio del perdón* (Senegal 87 min).

Errabaljazz-ek Antonio Vega & Yuri Gagarin Trio ekarriko dituzte datorren astean Herriko Antzokira

Programazio sendo eta irekia izango du aurten Errabaljazz jaialdiak (lehen, Debajazz). Kalitatezko jazz eta musika beltza ezagutarazi nahi ditu. Horretarako, Deba bailaran hainbat kontzertu antolatu dituzte urriaren 17tik 26ra.

Jaialdia Elgoibarko kontzertuarekin hasiko da urriaren 17an, Herriko Antzokian 22:15etatik aurrera. Bertan Antonio Vega & Yuri Gagarin Triok kontzertua eskainiko dute. Nacha Pop talde ezaguneko kantaria da Antonio Vega eta hirukotearekin batera jazz musika berezia lantzen du.

Elgoibarkoaz gain, kontzertu hauek ere izango dira inguruko herrietan: The Commitments (Elgetako Kafe antzokia, urriak 18, 22:30), Jazz Voices Ensemble (Soraluzeko Aretoa, urriak 24, 22:30) eta Mamassita Pro (Mutriku, Zabil Kultur Etxea, urriak 26, 20:00).

ERREBALJAZZ JAIALDIRAKO SARREREN ZOZKETA

ZEIN MUSIKA TALDEAN EGIN ZEN EZAGUN ANTONIO VEGA?

ASMATZEN DUTENEN ARTEAN KONZERTUETARAKO SARRERAK ZOZKETATUKO DITUGU.

1. saria: Yuri Gagarin Trio & Antonio Vegak Elgoibarren eskainiko duten kontzerturako bi sarrera.

2. saria: The commitments taldeak Elgetan eskainiko duen kontzerturako bi sarrera.

Erantzunak barren@elgoibarkoizarra.com helbidera bidali urriaren 15erako.



Udaletxeko pleno aretoan jokatu- dute Nazioarteko Xake Txapelketa

A benduaren 12tik 19ra jokatu-
da Nazioarteko Xake Txapelke-
ta. Aurtengo nobedade nagu-
sienetakoa partidak jokatu-
diren le-
kua izango da. Orain arte Kultur Etxean
jokatu izan dira partidak, baina aurt-
en, eta ikusle gehiago erakartzeko asmoa-
rekin, Udaletxeko Pleno Aretoan joka-
tuko dituzte nazioarte mailako xakelari-
rik onentsuenek xake partida guztiak.

laz, Miton irabazle

laz, bi faborito nagusiek elkarren
aurka jokatu eta azken partida hartatik
irten zen irabazlea. Kamil Miton polo-
niarrak eta Oleg Kornev errusiarrak pa-
rra egin zuten, eta honenbestez, polo-
niarrak jantzi zuen txapela.

Miton poloniarra eta Kornev erru-
siarra txapela jantzeko aukerekin iritsi
ziren azken jardunaldira. Korneve-
k de-
rigror irabazi behar zuen Elgoibarren



lortzen duen bosgarren txapela jantzi
nahi bazuen, eta Mitonek, berriz, nahi-
koa zuen berdinketarekin bere lehen
partaidetzan txapela jantzeko. Parra
amaitu zuten eta txapela poloniarren-
tzat. Errusiarrak, gainera, bigarren pos-
tua ere galdu zuen Dragan Paunovic
serbiarraren mesedetan.

Joseba Etxeberriak kobratu gabe jokatu- du azken urtea Athleticen

Joseba Etxeberria berak aurreratu zuen moduan,
2009-2010 bukaeran erretiratu da futbolari mo-
duan, hamabost urtean Bilboko taldean jokatu
ondoren; eta, azken urtean, kobratu gabe jokatu-
du duela azaldu du.

Fernando Garcia Makua presidentea alboan zuela
egin zuen prentsaurrekoa elgoibartarrak: "Urteotan
eman didan maitasuna itzuli nahi diot azkeneko urte ho-
rretan Athletici, dirurik ez jasota. Ohorea da bertan joka-
tzea, klub bat baino gehiago baita", esan zuen.



Irteera antolatu dute BTTn ibilbidean

Urriaren 26an, Debarrena BTT
Zentruko ibilbide bat ezagutzeko aukera
emango diete interesa duten guztiei
Elgoibarko Udai Kirol Patronatuak,
Debegesak eta Basquetourrek. Nahi
duten guztiek parte hartu dezakete.
9:30etan Mintxetatik hasiko da ibilbide
gidatua.

Antolatzaileek eman dute
ibilbidearen berri: "Sallobentetik
Kurutzeta baserriarte (Azkarate goian)
zati batzuk konplikatuak eta gogorrak
dira. Hesi pare bat pasa beharko dira.
Gero, Sargoatetik Irukurutzetara
bitartean bidea, quadsen eraginez
nahiko zulatuta dago eta zailtasuna
dauka. Gerora 4 km-ko ibilbide nahiko
laua izango dugu, gailurrean zehar,
Karakatera iritsi arte. Nahiko jait-
siera tekniko da Mintxetako Herrera Gunera
iritsi arte".

Meteorologia ikastaroa

Altzolako Zubibai elkarteak eta
Morkaiko Mendizale Elkarteak mendiko
meteorologiari buruzko ikastaroa
prestatu dute. Eskola teorikoak 12
orduko iraupena edukiko du. Urriaren
21, 23, 28 eta 30ean izango dira
klaseak 18:30etik 21:30era, Jubilatuen
Altzolako egoitzan. Praktikoak urriaren
25eko larunbat goizean egingo dute:
Larrun mendira bost orduko irteera.

Izena emateko: 943 74 02 97 edo
652 714 062 zenbakira deitu (Plaza
mugatuak). Morkaiko eta Zubibaiko
bazkideek zazpi euro ordaindu beharko
dute; gainerakoek, hamabost euro.



MEKANOSA

Errosario, 27
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA
ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX



**CORDON
VILARCHAO**

San Roke, 7 behe
Pst. Glaso - Glaso kalea, 10 - 25 eta 26 modulo
Tel. 943 740 570

DEKORAZIOA

Kargo eta barmeko estaldura
Zoluek ezarpen
Lakaduz egar, aluminio, PVC,
Pintura orokorra

GRUP
TRAYLUX

Enrique Gil omendu dute Ipar Euskal Herriko pilotariek egindako lanagatik

Errosario kaleko jaien barruan egin dute ekimena



Errosario kaleko jaietan Ipar Euskal Herriko pilotarien jokoak ikusi ahal izan da azken hamar urteotan. Horri esker, elgoibartarrek aurrez-aurre ikusi ahal izan dituzte Aranburu, Zugasti eta Sorohet munduko txapelak.

Enrique Gil elgoibartarrak pilotariak herrian egoteraekin zerikusi handia eduki du, eta egindako lana eskertzeagatik plaka bat oparitu zioten kaleko jaien egitarauaren barruan.

Joan den zapatuan eman zioten oroigarria Gili. 12:00etan pilota partidak hasi zituzten Plaza Handiko frontoian, eta aurretik egin zioten omenaldia.

Urtero-urtero etorri diren Ipar Euskal Herriko pilotariak ezin izan ziren etorri, joan den asteburuan beste hitzordu batzuk zituztelako. Baina, horren ordainetan, Lagunakeko pilotarien jokoaz gozatu ahal izan zen.

Eneko Loiola DV Torneoko lehen kanporaketan atzean geratu da



Eneko Loiola pilotariak ezin izan du afizionatu mailako DV Torneoko lehen kanporaketa gainditu. Jauregiarekin bikote eginez Ollo eta Etxeberriaren aurka jokatuz Errioxan, eta 22-11 emaitzarekin galdu zuten.

Euskadiko hiru txirlo txapeketa hasiko dute Iruzubietan bihar, zapatua

Euskadiko hiru txirlo txapelketa bihar hasiko dute Ziortza-Bolibarko Iruzubietan auzoko bolatokian (Bizkaian). Arratsaldeko 17:00etan hasiko dute lehiaketa, eta izena ematerakoan bost euro ordaindu beharko dituzte parte-hartzaileek.

Hurrengo hitzordua urriaren 18an izango da Eibarko Asola Berri bolatokia. Mallabiako Goitta bolatokia jokatuko dute hurrengo, hilaren 25ean, eta, azkena, azaroaren 8an, Elgoibarko San Pedron. Lehenengo sei sailkatuek sariak jasoko dituzte.

EMAITZAK

FUTBOLA

Haundi 2 – San Ignacio 0
Mutriku 4 – Elgoibar 1 (Erreg.)
Bergara 1 – Elgoibar 3 (Jub.)
Elgoibar 0 – Aloña Mendi 1 (Kad.)
Urki 0 – Elgoibar 9 (Inf.)
Tolosa 6 – Elgoibar 1 (Txiki)
Elgoibar 3 – Eibar 0 (Neskek)

ESKUBALOIA

Urdaibai-Cometel 23 – Elgoibar 21 (Jub. Neskek)
Urdaibai 6 – IMH Elgoibar 29 (Kad. Neskek)
Tolosa 26 – Elgoibar 26 (Senior mutilak)
Irungo Gazteak 10 – Pneumax Elgoibar 24 (Kad. mutilak)
Federopticos Ikus Elgoibar 22 – Bergara 12 (Kad. neskek)

ATLETISMOA.

Jose Merino Memorialia (Ermua)

Benjamin-aurrea

1- Asier Mandiola Arrizabalaga
2- Maria Ruiz de Gauna Gonzalez

Benjaminak

1- Nora Mandiola Arrizabalaga

Alebinak

1- Andoni Hernandez Egaña
2- Mikel Sagarna Urzelai
1- Ainhoa Etxeberria Perez
3- Andrea Arrieta Lopez

Infantilak

1- Iñaki Sagarna Urzelai
2- Leire Basterretxea Goyarzun

FUTBOLA

Elgoibar 3 – Azpeitiko 3 (Jub.)

ARETO FUTBOLA

UZ Coop. 2 – Kenci Elg. 3 (Nazional B)

AGENDA

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 11

12:30 Elgoibar – Bergara (Txiki)
16:00 Elgoibar – Antzuola (Erreg.)
18:00 Elgoibar – Aretxabaleta (Jub.)

Domeka, 12

12:00 Elgoibar – Eibartarrak (Inf.)

ARETO FUTBOLA (Kiroldegian)

Zapatua, 11

15:45 Kenci – Izkepot (Nazional B)

ESKU PILOTA (Ikastolako Pilotalekuan)

Barikua, 10

22:00 Lagunak – Eibar (Jub. N)

ESKUBALOIA (Kiroldegian)

Zapatua, 11

17:30 Cometel Elgoibar – Zarautz (Jub. neskek)
19:00 IHM Elgoibar – Zarautz (Kad. neskek)
12:00 Pneumax Elgoibar – Ereintza

Domeka, 12

12:00 Alcorca Forging Group Elgoibar – Arrasate (Senior mutilak)

LANA

ESKAERA

- Mutil gaztea, zerbitzari lanak egiteko prest.
- ☎ 943 74 03 85 (Mateo)
- Neska gaztea, umeak zaindu edo garbiketa lanetarako prest. Umeekin esperientzia; irakasle titulua. Ordu-tegi zabala.
- ☎ 638 012 182.
- Pertsona nagusiak zaindu edo garbiketa lanak egiteko prest. 18:00 - 09:30
- ☎ 699 813 826
- Mutila, lanerako prest. Zerbitzari lanetan esperientzi handia, banatzaile bezala ...
- ☎ 616 690 415
- Emakumea, adineko pertsonak edo haurrak zaintzeko prest.
- ☎ 616 690 415
- Emakumea, etxeko lanak egiteko prest (arratsaldez)
- ☎ 943 74 32 51
- Neska gaztea, umeak edo pertsona zaharrak zaintzeko prest (egun osoz edo ordu batzuetarako).
- ☎ 660 289 049
- Neska, pertsona nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanetan aritzeko prest.
- ☎ 678 939 382
- Neska gaztea, edozein lanerako prest arratsaldez (esperientzia ume-zaintzaile bezala)
- ☎ 685 796 177
- Emakume euskalduna, kotxearekin baserrietan pertsona nagusia zaintzeko edo antzeko lanak egiteko prest. Esperientziarekin.
- ☎ 626 438 248
- Emakume euskalduna, pertsona nagusiak zaintzeko prest (garbiketa lanak egingo lituzke)
- ☎ 660 511 781

- 30 urteko mutila, garraio lanetarako prest. C gida-baimena badu.
- ☎ 660 806 008

ESKAINTZA

- Au-Pair behar da Londresen urtariletik udara arte. *mirenlondon@hotmail.com*
- ☎ 667 710 753
- Sukaldari laguntzailea edo sukaldaria behar da.
- ☎ 943 743 196

ETXEBIZITZA

ALOKAIRUA

- Etxea alokairuan bilatzen nabil. Bi edo hiru logelakoa
- ☎ 696 246 962
- Etxea alokatzen da Mendaron.
- ☎ 658 379 393

MOTORRA

- Ford Fiesta 1.8 Diesel autoa salgai. Egoera onean, errebisio guztiak pasata. 2000 euro.
- ☎ 680 903 394 (Aitor)
- Golf 1.6 autoa salgai (1999 urtekoa). Egoera oso onean, 108.000 Km ditu, 4000 euro.
- ☎ 670 429 380
- Iveco Daily furgoneta, salgai. 2800 turbo motorduna.
- ☎ 607 393 114 / 678 623 114

HEZITZAILEAK BEHAR DIRA

Proiektuaren helburua:

- 12-16 urteko Elgoibarko gazte-kuadriletan euskara sustatzea asteburuetan.
- Dedikazioa: 5 ordu astean.

Eskatzen dena:

- 18 urte beteak izatea.
- Elgoibar edo ingurukoa izatea.
- Hezkuntza adarreko ikaskuntza izatea baloratuko da.

Curriculumak jasotzeko azken eguna: **URRIAK 21**

ELGOIBARKO IZARRA Kultur Elkarte
Ubitarte 4, behea / 20870 Elgoibar

Informazio gehiago: 943 74 16 26 (Idola)
aisia.euskalduntzen@elgoibarkoizarra.com

Elgoibarko Izarra Elkarteak, EUSKARA ERREFORTZUETARAKO hezitzaileak behar dira.

<ul style="list-style-type: none"> • Hurrekin lan egin. • Urris-ekaina bitartean. • Astean 3-4 ordu (arratsaldez) 	<p style="text-align: center; margin: 0;">Bete beharreko ezaugarriak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • 18 urte beteak izatea. • Elgoibar edo ingurukoa izatea.
--	---

Curriculumak bidaltzeko eta informazioa eskatzeko epia: **URRIAREN 24a.**
ELGOIBARKO IZARRA Kultur Elkarte
Ubitarte 4, behea / 20870 Elgoibar
aisia.euskalduntzen@elgoibarkoizarra.com edo 943 74 16 26 telefonora deitu.

ELGOIBARKO GAZTELEKUAN LAN EGITEKO KOORDINATZAILE-HEZITZAILEA BEHAR DA

ESKATZEN DA:

- ◀ Gutxienez unibertsitateko diplomatura.
- ◀ Aisialdian zein gazteriaren alorretan prestakuntza espezifikoa edota eskarmentua.
- ◀ Elgoibar edo ingurukoa izatea baloratuko da.
- ◀ Bereziki titulazio hauek izatea baloratuko da: Gizarte Heziketako, Gizarte Laneko, Irakaskuntzako, Pedagogiako, Psikopedagogiako,... goi eta erdi mailako unibertsitate tituluak.


ESKAITZEN DA:

- ◀ 2009ko irailaren 31ra arteko lan-kontratua (azaroan hasita).
- ◀ Dedikazio osoko lanaldia.
- ◀ 1.300 euroko soldata (14 paga).

Informazio gehiago eta curriculumak entregatzeko:
E-posta: aisia.zerbitzuak@elgoibarkoizarra.com - Tel.: 943 74 16 26 (Ainara) - Azken eguna: Urriak 16 (osteguna)



• Zorionak, amuma **Nika-sil** 85 patxo denon partez, eta bihar ondo pasa.



• Zorionak, **Danel Zubizarreta**, urriaren 5ean sei urte egin zenituelako. Muxu potolo bat familiakoen partez.



• Zorionak, **Aida printsesal** Muxu pila bat zure zazpigarren urtebetetzeari



• Zorionak, **Markel**, zazpi urte egingo dituzulako. Muxu handia bereziki, Ibai, Julene eta Nerearen partez.



• Zorionak, **Ander**, domekan hiru urte egingo dituzulako. Ainhoa, Garazi eta Naroaren partez.



• Zorionak, **Egoitz**, astelehenean hamar urte egingo dituzulako. Muxu handi bat familiakoen partez.



• Zorionak, **Garazi**, eguaztenean lau urte egin zenituelako. Gurasoen, eta bereziki, Iruneren partez.



• Zorionak, **Markel**, atzo urtetxo bat egin zenuelako. Familiakoen partez muxu handi bat.



• Zorionak! Bi urte eta umore horrekin bizitza alaitzen! Hau tipua hau!



• Zorionak, **Markel**, gure etxeko kirolariari, 6 urte bete dituelako. Gurasoen eta Haizearen partez.



• **Haize** bost urte igandean. Zorionak Garazi, Nerea, Ainhoa, eta familiakoen partez!



• Zorionak, **pareja!** Ondo pasau zuen ezkontza egunean. Koadrilakoen partez.

OHARRA

Norbait zoriondu nahi baduzu, argazkia eguzten eguerdia baino lehen ekarri behar duzu BARRENeke bulegora edo barren@elgoibarkoizarra.com e-postara bidali.

Tel.: 943 74 41 12

Lanbroa



Gosariak
Pintxoak
Bokatak
Plater konbinatuak

Astelehenetik ostiralera irekita goizeko 7etatik aurrera.
Larunbat eta jaiegunetan goizeko 8etatik aurrera.

Pedro Muguruza, 5 · Tel.: 943 74 38 11 / 943 74 08 06

Ileapaindegia · Estetika · Solarium-a

Idama



Iraileko irabazlea:

RAQUEL MARTINEZ

Urriako saria:

EDERTASUNERAKO
PRODUKTU
SORTA

Antonio Arrillaga, 6-8 behea (sarrera Santa Ana kaletik)
Tel.: 943 74 40 26

OKINDEGIA

12 domeka **BOLINTXO**

FARMAZIAK

24 ORDUZ

- 10 Etxeberria (Errosario)
- 11 Ibañez
(*Goizez Garitaonandia)
- 12 Ibañez
- 13 Garitaonandia
- 14 Etxeberria (Santa Ana)
- 15 Fernandez
- 16 Yudego
- 17 Zabaleta

Ibañez
Rekalde, 1 (SORALUZE)
Tel: 943 75 16 38

Fernandez
Herriko enparantza 4,
Garagarza (MENDARO)
Tel: 943 75 61 42

Zabaleta
Kalebarren, 9 (SORALUZE)
Tel: 943 75 13 84

**INFORMAZIO
GEHIAGO:**



Egin klik

www.elgoiBARREN.net



«Mamma mia»

11, zapatua: 19:00/22:15
12, domeka: 19:00
13, astelehena: 21:30

**«Wall-E: Batallón de limpieza»
(Umeentzat)**

12, domeka: 16:30

«Breathe»

(Ongarri Zine Kluba)
16, eguena: 21:30

musika

10 barixakua

22:30 Djibril-Thior
kantautorearen kontzertua
Senegaleko kantautoreak
kontzertua eskainiko du Iratzo
tabernan.

17 barixakua

22:15 Yuri Gagarin Trio &
Antonio Vega
Errabaljazz jaialdiaren barruan,
kontzertua izango da Herriko
Antzokian.

erakusketak

17 barixakua

19:00 Shanty Oriaren
margoak eta eskulturak
Shanty Ori elgoibartarren
erakusketa inauguratuko da
Kultur Etxean. Azaroaren 2ra
arte egongo da ikusgai.

kirola

12 domeka

12:00 San Pedroko igoera
Elgoibarko Lagun Taldeak
antolatuta, San Pedroko
txirrundulari igoera izango da.
Irteera, Plaza Handian.

10:00 Mendi irteera

Ikastolako gurasoek
antolatuta, Belartzandira
irteera. Ikastolatik.

antzerkia

10 barixakua

22:15 Maldito pamé
Glu-Glu antzerki taldeak
Maldito Pamé antzezlanak
taularatuko du. Herriko
Antzokian.

besteak

12 domeka

12:00 Pilar Ikastetxearen
eguna
Pilar Ikastetxean Pilarko Ama
Birjinaren eguna ospatuko
dute. Meza izango da leheneik
ikastetxeko gimnasioan, eta
ondoren luntxa.

LUDETEKAKO EKINTZAK

**Eguaztena 15,
zatoz LUDOK
idatzitako
eskutitza
irakurtzera!
16:30-19:30**

GAZTELEKUKO EKINTZAK

**Domeka 12,
Pilar eguna
dela eta,
GAZTELEKUA
ITXITA
egongo da.
Barkatu
eragozpenak.**



Gure gomendioa

Shanty Oriaren erakusketa

Urriaren 17tik azaroaren 2ra, Kultur Etxean

Datorren barixakuan inauguratuko da Shanty Oriaren erakusketa. Elgoibartarrak bere margoak eta bronzeko eta burdinezko eskulturak jarriko ditu ikusgai.

Bisita orduak: Astelehenetik zapatuta (19:00-21:00) eta domeketan (12:00-14:00)



Jose Angel Zabala

MAHASTI

Urdaitegi eta ardandegia

Merkatu plaza, 30, 33, 34 • 615 76 03 72

LEKU ALDAKETA!

ZURE ALDE

ZA

ABOKATUAK

Komunitateen, ugazabeen aholkularitza.
Zuzenbide penala, zibila, laborala, familiarra.

Iñaki Gil Azpilicueta **Ignacio Vazquez Gonzalez**
Jausoro Plaza, 3 beheak e-mail: zurealde@telefonica.net
Tel.: 943 531 351 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)

Zerikasi

IKASTAROAK

Office teknikaria

Norentzat: Langabetuentzat
Hizkuntza: Gazteleraz
Hasiara data: 2008-10-20 / Bukaera data: 2008-12-17
Non: Elgoibar
Izenemate bukaera: Hasi baino hiru egun lehenago

Arreta klinikoa

Norentzat: Langabetuentzat
Hizkuntza: Gazteleraz
Hasiara data: 2008-10-27 / Bukaera data: 2008-12-19
Non: Elgoibar
Izenemate bukaera: Hasi baino hiru egun lehenago

Sevillanak eta Kubako dantzak

Norentzat: Interesatuentzat
Hizkuntza: Zehazteko
Hasiara data: 2008-10-31 / Bukaera data: 2008-09-26
Non: Elgoibar
Izenemate bukaera: Kontsultatzeko

Euskal dantzak

Norentzat: Interesatuentzat
Hizkuntza: Euskara
Hasiara data: Urriak 20
Non: Elgoibarren
Izenemate: Urriaren 17ra arte, Kiroldegian. 943 744 415

Sukaldaritza ikastaroa

Norentzat: Gazteentzat
Hizkuntza: Euskaraz
Hasiara data: 2008-10-18 / Bukaera data: 2008-12-20
Non: Elgoibarren
Izenemate bukaera: Urriak 15

Informazio eta eskaintza zabalagoa:
www.zerikasi.com edo 943 74 82 71

ZINEMA SOZIALA: HERRI INDIGENETATIK KOMUNIKAZIOA ERAIKITZEN (KULTUR ETXEKO HITZALDI GELAN, 19:00ETAN)

13, astelehena

«Eso viene sucediendo»

«Inhaladores»

«Mi primer contacto»

«Soy defensor de la selva»

14, martitzena

«Voces del desierto»

«Guatemala tierra arrasada»

16, eguena

«Lo mas dificil es el amor»

«Sueños binacionales»

«La cabalgada espiritual»

17, barixakua

«El precio del perdon»

grafitia

II. PIROPO LEHIAKETA



Irabazlea: Mikel Garate

"A ze nolako kurbak
San Migelekoak baino handiagoak"

"Ni edalontzia banintz, zu nire esnetxo."

"Esan zure izena nire urtebetetzean zu eskatzeko."

"Zurekin dena."

"Zure begi ederrak eguzkia baino disdiratsuagoak dira."

"Ferrero roxer bonboia izan nahiko nuke zure ahoan urtzeko."

"112ra deitu beharko nuke zu ikustean bihotza sutan hasten zaidalako."

"Zurekin Parkour nahiko nuke egin."

"Mausitxako gazta baino kobeagoa zara."

"Lehenengoz ikustean zoratu nintzen, bigarrenean nozku bete nintzen.
Hurrengoan ia kaka egin nuen. Eta baiezkhoa entzutean arnas gabe geratu nintzen."

Bidali zure oihua, bertsoa, aldarrikapena, marrazkia edo nahi duzuna, eta BARRENEko horman jarriko dugu. Helbidea: barren@elgoibarkoizarra.com

Graffitiari parte hartzeko izen-abizenak eta telefonoa eman behar diguzue, derrigorrez. Zure izena bistaratu ala ez, berri, aukeran lagako digugu.



Udazkeneko berrezkuntza



Joxean López Fernández
Naturopata
Iridiologoa
Homeopata
Bachen loreak

KEMEN
BELARDENDA

Behakuntza, medikuntza onena.

Udazkena hemen da, hori horrela da. Natura eta gu geu bat gara. Egokitzea eta gertatu behar dena gertatzen lagatzea osasun ezinhobe baterako oinarriak dira.

Ereindako fruituak hartzeko ordua ailegatu da, atsedena eta barneratzea

hartzeko sasoia. Erlaxazio fisiko eta mentala funtsezkoak dira.

Errealitatea ez da guk uste duguna. Horrekin konturatzea urtaro hau ondo hasteko metodo ona izan daiteke.

Gure tentsioei begiratzeak (fisikoak, emozionalak eta mentalak), lotu gabe, distantzia hartzea ahalbidetzen digu eta progresiboki aske eta harmoniatu sentituko gara.

Egin aproba behingoz! Zaude ezertxo egin gabe, gutxienez egunean ordubete, eta zure barnean gertatzen denaz jabetu.

Osasuna ez da erosten. Geu gara gertatzen denaren arduradun eta sortzaileak.

Larritasunari, penei, tristeziari, gogo ezari, oroitzapenei, loturei eta erlazio eta komunikazio arazoaren prozesuei adi egoteko garaia da.

Fisikoki, biriken prozesuei adi egon behar dugu (katarro, asma...), hesteen prozesuei (beherakoak, haizeak, idorrieriak, ...) eta azalaren prozesuei.

Laguntza handikoak izan daitezke arnasketa lasaia oinarritat duten ariketa fisikoak (yoga, taichi, dantza, ibiltzea, luzaketak...), sen onez oinarritutako nutrizio indibidualizatua ahaztu gabe.

Ahal den eta gehien esperimendu ezazu! Aurtengo udazkena iazkoa baino zoriontsuagoa eta beteagoa izan dadila. Agur.

MEDIKUNTZA ALTERNATIBOAK

Kemen Belardenda

Berria!!! Naturopata, Iridiologoa eta Homeopata.

("Dieta erraza" mehetzeko tratamendua...)

Bach loreak, P.N.L, makrobiotika, janari biologikoak, nutrizio eta osasun ikastaldiak.

San Bartolome, 25 - Tel: 943 74 40 31

Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

Sanatana Dharma Yoga Elkarte

Urasandi, 9

Tel: 943 74 85 93 (Ildoa) - 685 722 131

Astearte eta ostegunetan:

10-11:30/13:00-14:00/15-16:30/

18-19:30/20-21:30

Mendaro

Astelehen eta asteazkenetan:

10-11:30/15-16:30

Astearte eta ostegunetan: 20:00-21:30

OPTIKAK

Ikus optiko-optometrista

San Bartolome, 10

Tel: 943 74 37 34

Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

Uzuri

(Optometria, tonometria, kontaktologia,

audiometria) San Frantzisko, 21

Tel: 943 74 03 59

Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

HORTZ KLINIKAK

Irale

Errosario Kalea, 7 behea (Elgoibar)

Tel: 943 74 36 79

Zeharkalea, 8 behea (Ermua)

Tel: 943 17 71 34

e-posta: irale@irale.com

webgunea: www.irale.com

ORTOPEDIAK

Itziar Sarasketa

San Frantzisko, 12 - Tel: 943 74 35 62

Egunero: 9:30-13:00 / 17:00-20:00

MASAJISTAK

Victoria Iraegi

(Esku- terapiak: kiropraxia, dranzatzaile

linfatikoa, osteopatia, kirol masajea

(bendaje funtzionala eta "taping

neuromuskularra", lehiaketa bendajea.)

San Frantzisko kalea, 40 (atzealdea)

Tel.: 943 74 07 70

Astelehenetik Ostiralera 8:00 - 14:00

FISIOTERAPIA

Ainhoa Fisioterapia

Eragozpen fisikorik ongoing balitz,

etxez etxeko zerbitzua eskainiko litzateke.

Tel. 943 53 19 53 - 669 565 745

Goiz eta arratsaldez - Jausoro, 6 behea

PODOLOGOAK

Oinberri

Errosario kalea, 25 - Tel: 943 74 17 95

Astelehenetik ostiralera: 9:00-13:30/

15:00-19:30

Iñigo Arrilaga Yudego

- Hanken afekzioen terapia.

- Neurriera egindako plantilak.

- Hanka diabetikoen zainketa.

- Ordenagailuaren bidezko hankaren azterketa.

San Frantzisko kalea, 20 behea

Tel: 943 74 16 45

Ordutegia: 9:30-13:30 / 15:30-19:30

Inskripzioa (beharrezkoa):

www.imh.es - imh@imh.es
Telefonoa 943 74 41 32
IMH, Azkue Auzoa 1 - Elgoibar

IMH, Elgoibar
2008ko urriak 23

30+10 MINTEGIA: hizkuntza-kudeaketa enpresan

Antolatzailea

Makina Erremintaren
Institutua

Kolaboratzaileak

Hizkuntza Politika Sailburuordetza
Gipuzkoako Foru Aldundia
Elgoibarko Udala
Ahize-AEK

Parte-hartzaileak

Enpresa eta hizkuntza kudeaketa
Igor Calzada - Nevada Univ./ MU, Mik
Daniel Hermosilla - EHU-UPV
Pilar Kaltzada - Innobasque
Sergio Monge - EHU-UPV

Praktika onak
EUSKALTEL
TALLERS PER LA LLENGUA (Katalunia)
AHIZE-AEK
UNIVERSITÉ DE NAMUR (Belgika)
EMUN-KUTXA

Euskara Planak
TEKNIKER
GKN-LEGAZPI
URKOTRONIK
IDEKO

Produktu eta zerbitzuak

ELEKA
Dokusare, dokumentu eleanitzak
erlazionatzeko teknologia

MICROSOFT
Euskaraz prestatutako softwarea

EMUN
Enpresetako euskaldunon kontzientzian
eragiteko tailerrak, Telp esperientzia

ANDRES URRUTIA
Lege dokumentuak eta notaritza lanak

ESLE- IRONTEC
Software aske eleanitza

ELHUYAR
Euskararen aldeko jarrera positiboak
lantzeko prozesu-esperientziak